

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Kontsumo Departamenduak iDental hortz- kliniken ustezko iruzurra jasan duten pertsonek erreklamazioak izapidetu ditu

Oraingoz 17 pertsona artatu dira, eta Nafarroako Osasun Zerbitzuaren aho-hortzetako unitateetan ere azterketak egin dizkiete.

Asteartea, 2019.eko otsailak 19

Nafarroako Gobernuaren Kontsumo eta Arbitraje Zerbitzuak iDental hortz-kliniken ustezko iruzurra jasan duten 17 pertsonen erreklamazioak izapidetu ditu, eta Servicio Navarro de Salud-Osasunbidea aho-hortzetako osasun-unitateetan pertsona horien osasun egoera aztertzen ari dira une honetan.

Gogoratu behar da Nafarroan iDental hortz-klinikarik ez bazegoen ere, Nafarroako Foru Erkidegoko herritarrak eskualde mugakideetako establezimenduetara joaten zirela tratamendua jasotzera. Hori dela eta, Kontsumo eta Arbitraje Zerbitzuak erreklamazioa jarri ez duten nafar guztiei Iruñeko Amaya kaleko 2 zenbakiko bulegoetara bertaratzeko dei egiten die, dagokion izapidea martxan jar dezaten.

Nafarroako Gobernuak jasotako erreklamazioak Espainiako Gobernuaren Kontsumoko Zuzendaritza Nagusira bideratu ditu, Auzitegi Nazionalean izapidetzen ari den prozedura judizialean parte har dezan. Oraingoz, Organo judicial honen 5. instrukzioko epaitegi zentralak hainbat kreditu-emailek beraiekin kreditu-kontratuak sinatu zituzten kontsumitzaileen kontra aurkeztutako erreklamazioak etetea erabaki du. Izan ere, kreditu horiek tratamenduak finantzatzeko eskatu zituzten eta kasu askotan tratamendu horiek bete edo osatu gabe geratu dira.

Halaber, Audentzia Nazionalak kreditu-kontratuak sinatu dituzten finantza-erakundeei ez ordaintzeagatik demanda judizial berririk ez aurkezteko eskatu die, eta kreditu-kuotak ordaintzeari utzi dioten kaltetuen datuak ordaingabeen fitxategietatik kentzeko ere.